



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/09/20 Udaletxean 18.00-19:30



Gaurkoan bildu gara,

- Adur Ezenarro (Bildu)
- Edurne Huesa (Landarlan Ingurumen elkarte)
- Patxi Arrospide (Herritarra)
- Miren Nekane Apaolaza (Herritarra)
- Josemi Santamaria (Alkatea)
- Angelica Moreno (EAJ)
- Mila Sukia (Ordizia Orain)
- Rosa Aurkia (Ingurumen teknikaria)

Lanagatik bere ez egotea justifikatu du: Carlos Gonzalez (Irabazi)

Gai ordena

Bileran ondoko gaia landu zen:

- 1. Aurreko aktaren onarpena**
- 2. Jaietan hondakinen bilketa zerbitzua**
- 3. Ordenantza**
- 4. Hurrengo bilera**

Aurreko aktaren onarpena

Aurreko akta onartutzat ematen da baina Edurnek bi aldaketa egin ditu:

- Edurnek bi aldaketa proposatu ditu aktan, euskaraz gazteleraz bezala ez nituelako idatzita.
- Arrasateko informazioa: Informazioa eskatu ondoren webgunean dutela esan zidan eta azkenen, beraiengana hurbiltzea erabaki da. Bilera egun bat adostu behar da eta hau goizez izan behar du.
- Sasietako komertzioetako datua: urrian bi sistemak batera egongo dira Ordizian, etxeko bilketa edukiontzien bidez eta komertzioetan atez ateko bilketa. Neurtzen hasiko dira bi sistemak eta datuak eduki orduko bidaliko digula esan du.
- Sasietako Ordenantza: Ordenantza osoa berritu egin behar dute, edukiontzi grisa ez dagoelako ondo definituta baina ez da lehentasunezko gaia. 2017an egingo dutela aurreikusten du.
- Gaikako bilketa tasa: Uztailean %69a herriko jaien ondorioa izan daiteke.
- Puntu beltzak: poligono kalean, Arana kalean eta Aldasoro taberna atzekaldean.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/09/20 Udaletxean 18.00-19:30



Edukiontzien bidezko sistema

Alkateak eman diren eta hemendik aurrera emango diren pausoak azaldu ditu.

- Martxoak 13: Galdeketa
- Martxoak 18: Galdeketako erabakia plenez ratifikatu.
- Apirilak 20: Sasietako batzordean edukiontzien erosketa Ordiziako Udalak ordaintzea erabaki. Ondoren, Sasietako asanbladan onartu.
- Ekainak 3: Edukiontzien erosketa plegua lizitatu.
- Uztailak 11: Behin-behineko adjudikazioa
- Uztailak 27: Behin betiko adjudikazioa.
- Abuztuak 1: Kontratua sinatu
- Irailak 26: Edukiontziak jartzen hasi. 5 egunetan gaez jarriko dituzte (gauero 8 puntu) eta herri osoan edukiontziak jarrita egongo dira irailak 30erako.
- Komertzioei informazioa: Komertzioetako sistema berraztertzen ari dira. Udaletxean Sasietako teknikaria egongo da Informazioa banatzen. Aukera emango zaie edukiontzien sistema aukeratzeko, sortzen duten kantitatearen arabera.
- Informazioa:
 - o 10 puntutan pixoihalen edukiontziak
 - o Edukiontzi organikoak ez dira erosi. Aurrekoak erabiliko dira.
 - o 4 edukiontzi mota erosi dira: urdina, horia, grisa eta pixoihalena.
 - o Edukiontziak sarraila elektronikoko berria dute.
 - o Edukiontziak gune guztietakoak ireki daitezkeen ala bakoitzak bere gunekoa irekiko duen Sasietari galdetzeko eskatu dute.
 - o Atez ateko poste guztiak kenduko dira.
 - o Bakoitzak bere kuboak gordetzeko aukera izango du.
 - o Edukiontziak erosteko dirulaguntza eskatu zen baina oraindik ez dago ebazpenik.

BILDU: "Aktan jasotzea nahiko genuke ez gaudela ados edukiontzien kokapenak Sasietaren irizpide teknikoaren arabera soilik aukeratzearekin eta prozesua presaka egitearekin. Edozein hondakinen bilketa sistema erabilita ere, bilketa guneak beti dira konfliktiboak, eta horregatik, herritarren iritzia entzuteko prozesu bat ireki behar zen. Gauzak honela egiteak arazoak eragingo ditu zenbait puntutan, bizilagunen iritzia kontutan izan ez delako.

Gainera, ez gaude ados, herritarrei adierazi zitzaielako hondakinen bilketa sistemaren aldaketa prozesua hondakinen mahaiak kudeatuko zuela, eta mahai honetan ez da inolako hausnarketarik egin jarriko diren bilketa puntuen inguruan. Erabaki duena udal gobernua izan da, eta hori argi eta garbi helarazi behar zaie herritarrei, hartutako erabakien ardura ez dagokiolako hondakinen mahai honi."

- ALKATEA: Irizpide teknikoak (segurtasuna, ibilbideak, kamioek biltzeko eskubiko karga laterala izan behar du...) zehaztu dituzte edukiontzien



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/09/20 Udaletxean 18.00-19:30



- kokapenak. Gutxi gorabehera lehen zeuden lekuak mantentzen dira. Gero herritarrak parte hartzeko aukera izango dute.
- ORDIZIA ORAIN: Mahai honen konpetentzia bada irizpideak zehaztea.
 - EDURNE: Nik eskatu nuen mahai honetan lantzea irizpide hauek baina lan teknikoa zela erantzun zidaten. Bizilagunak lekua hobeto ezagutzen dute eta beraiek zer esana badute.
 - PATXI: Jarri, aztertu eta aldatzeko aukera egongo da.
 - ORDIZIA ORAIN: Komunikatu Sasietak zehaztu dituela irizpide teknikoak eta esan aldaketak egin daitezkeela.
 - NEKANE: Argazki batetan azaldu ginen esanez guk hainbat lan genituela eta gaur egun gai batzuk beste bide batetik ematen ari dira.
 - ALKATEA: Sasietak eta hondakinak bildu behar dituen enpresak jarri dituzte irizpideak.
 - ALKATEA: Atez ateko sistema irailaren 30ean bukatuko da. 5 egunetan bi sistemak elkar biziko dira. Errefusaren edukiontzia astelehen eta ostiraletan irekiko da.
 - NEKANE: Nork hartu du edukiontzia noiz irekiko diren erabaki hori?
 - ALKATEA: Sasietaren erabakia izan da.
 - NEKANE: Mahai honetan ez da ezer erabaki. Gauza asko gelditu dira zintzilik, gure eginkizuna zein den ez dakit.
 - ORDIZIA ORAIN: Testu informatibo bat ateratzen bada, agian mahaiak aztertu dezake.
 - EDURNE: Nik uste Udalak eta Sasietak atera behar dutela beraiek erabaki dituztelako irizpideak.
 - EDURNE: Uztailleko bandoan ez zen zehazten hondakin mahairena zela eta jarri egin beharko litzateke.
 - NEKANE: Gauza hauekin kontuz ibili behar gara.
 - EDURNE: Organikoaren inpropioen datua Arrasaten urtean behin ematen da (web orrialdean nago), nik uste gutxi dela. Gainera, Sasietari inpropioen datua emateko eskaera egingo nioke.
 - BILDU: Inpropioen datua fakturaziorako erabiliko dute.
 - EDURNE: Gaikako tasa minimoaren azpitik gaude.
 - NEKANE: Inpropioak badaude, nork neurtzen du? Zein izango dira neurri zuzentzaileak?
 - BILDU: Honen jarraipena fakturak dira, Sasietak fakturatzen duena Udalarari da.
 - NEKANE: Atez atekoarekin neurri zuzentzaileak zeuden, gaizki egiten zuenari txartel bat jartzen zitzaion.
 - EDURNE: Edukiontzien sistema honekin neurri zuzentzaile individualizatuak ezin dira jarri.
 - NEKANE: Ordenantza hau zehaztu egin beharko litzateke, isunak jarri gaizki egiteagatik.
 - EAJ: Europako Ingurumen komisioko 2030erako %65eko tasa zehazten dute eta %80a baino gehiago lortzea zaila esaten dute.
 - ORDIZIA ORAIN: Isunak azkeneko bidea izan behar du, aurretik beste neurriak egon behar dute.
 - NEKANE: Baina gaikako tasa jaisten ari da.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/09/20 Udaletxean 18.00-19:30



- **TEKNIKARIA:** Tasa dabil gora-behera, uztailleko datu kaxkarra dago baina hau jaien ondorio bat izan daiteke.
- **BILDU:** Isunak jartzeko aukera dago baina administrazioan gero hauek ezartzea zaila da.

Hondakinen prebentzio astea

Prebentzio astean egiteko hainbat ideia mahai gainean jarri dira:

1. Kaleak oso zikinak daude eta zerbait egin beharra dago: Ostiral arratsalde edo larunbat goiz batetan egin daiteke. Kaleko zaborrontziak gainezka daude.
 - a. Zigarroen kolillak: Hautsontziak ez daude zaborrontzietan. Gasteizen Udalak kalean ditu jarrita. Beste udalerrietan hautsontzi portatilak ere banatzen dira.
 - b. Legazpin kale eta parke garbiketa bolondres egiten dute. Zaborrontzietako eta kaleko zikinkeria jasotzen da.
 - c. Idiazabalen parkea astebetean ez zuten garbitu.
 - d. Parkea zikina dagoenean argazkiak atera daitezke.
 - e. Goxoki denda kanpoan zerbait jarri. Denda gehienak kanpoan zakarrontzia badute.
2. Hezitzaileak kalean jarri, Arrasaten egin den bezala. Jendeari saritu edo zoriondu eta gaizki egiten duenari ere esan. Arrasatera joaten garenean honen inguruko informazioa jasoko dugu.
 - a. Zabor poltsak ere ireki daitezke inor identifikatu gabe: Errefusaren poltsa ireki eta honen karakterizazioa egin.
 - b. Aste honetan egitea ondo ikusten da baina gaikako bilketa tasa jaisten badao ekimen hau berriro egin beharko litzakela esaten da.
3. Hondakin bakoitza nora bota behar den azaltzen duen gida (dauden dudak argitzeko) bat argitaratu, beste udalerrietan egin den bezala: Sasieteri galdetu beraiek egingo al duten.
4. Merkatari eta ostalariekin zerbait egin daiteke: Bartzelonan jatetxe batetan, bere auzoan soberan geratzen diren janariak jaso eta janaria prestatzen du prezio merkeago batetan. Ordizian azoka dugu eta agian hemen zerbait egin daiteke.
5. Tupper eta boltsa berrerabilgarriak berriro erabiltzea saritu. Merkatariekin bilerak egiten direnean ere gai hau landu jakiteko beraiek zer pentsatzen duten. Udalerrri batetan tupperraren erabilera itsasoaren kutsadurarekin lotu dute.

EAJ: Udalak 3.000 € ditu eta hau erabili daiteke.

EAJ: Mugikortasun astearen barruan atzo bizikleta martxa bat antolatu nahi genuen baina Lehen Hezkuntzako bi ikastetxeak ezetz esan dute. Erabili



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/09/20 Udaletxean 18.00-19:30



dituzten argudioak: bizikletak non utzi ikastetxean, segurtasun eskasa,....
Beraien proposamena eskolaz kanpoko garaian egitea izan zen.

EAJ: Urriaren 1ean erreka eguna antolatuko dugu. Ikastetxeak baiezkoa eman dute (Urdanetak oraindik ez du erantzun). Gonbidapena bidaliko zaizue. Deialdia luzatuko dugu herri guztira (elkarteak, gaztetxea, kirol taldeak,...).

EDURNE: Urtean zehar garbiketa profesional bat egin beharko litzateke. GFAk itsasontzi bat jarri behar du itsasoa garbitzeko, baina errekak? Administrazioak ere garbiketa hau egin behar du.

ORDIZIA ORAIN: Goieki bidez noizbait Oria ibaia garbitu da. Beasainen ere garbiketa egiten dute.

EAJ: URAk zerbait ere egin beharko luke.

Ordenantza

Ordenantza ereduan, teknikariak kriba bat egingo du eta zehaztuko du berarentzat zeintzuk diren udal mailako eta zeintzuk diren mankomunitateko ardurak, bakoitzak duen lanaren arabera.

Hurrengo bilera

Urriko bilera: urriaren 18an arratsaldeko 18:00etan.